



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

EBAZPENA (Esptea.: 03/2014, AHO-HIGIENEA)

Osoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Bilbao, 2014ko azaroaren 6a

LABURPENA

I. AURREKARIAK.....	1
II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK	2
1. Prozedura-kontuak.....	2
2. Gaiaren funtsa	2
III. EBAZTEN DU.....	4

Lehiaren Euskal Kontseiluak (LEK), goian adierazitako kideez osatua, honako ebazpen hau eman du, PRODUCTOS Y SERVICIOS PARAFARMACEUTICOS SAGAR, S.L. merkataritza-enpresak PROCTER & GAMBLE ESPAÑA, S.A. enpresaren aurka jarritako salaketaren ondorioz.

I. AURREKARIAK

1. 2014ko irailaren 26an, Lehiaren Euskal Agintaritzan (LEA) sarrera eman zitzaion Aitor Sabatie Diez jaunak PRODUCTOS Y SERVICIOS PARAFARMACEUTICOS SAGAR, S.L. enpresaren izenean eta haren ordezkari gisa aurkeztutako idatziari, non ustez Lehia Defendatzeko Legearen ¹ aurkakoak diren jokabideen berri ematen zen.

¹ Lehia Defendatzeko Estatuko 15/2007 Legea, uztailaren 3koa. BOE 159. zk., 2007ko uztailaren 4koa.



Jokabide horien arabera, salatuak ez die aplikatu parafarmaziei Fluocaril hortzetako pasta erostean aurretik beste zenbaitetan aplikatu zien deskontua (% 35), deskontu txikiagoa baizik (% 8). Baina farmaziek % 35eko deskontuari eusten diote, eta, hala, farmazien eta parafarmazien artean % 27ko aldea sortzen da.

2. Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2014ko azaroaren 6an egindako bilkuran, honako ebazpen hau ematea erabaki du.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Prozedura-kontuak

3. Lehia Defendatzeko Legearen 49.3 artikuluan ezartzen denez, Lehia Defendatzeko Batzorde Nazionalaren Kontseiluak –gure kasuan, Lehiaren Euskal Kontseilua, zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa betez–, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, aukera izango du lege horren 1., 2., eta 3. artikuluetan debekatutako jokabideak ustez izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hasteko eta ordura arteko jarduketak artxibatzeko, baldin eta legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten badio.

4. Lehia Defendatzeko Erregelamenduaren 25. artikulua ezartzen duenez, salaketa jarri izanak ez du esan nahi Ikerketa Zuzendaritzak ezinbestean zehapen-prozedura abiatu behar duenik. Prozedura ez irekitzeko erabakia salatzaileari jakinarazi beharko zaio, azalduz prozedura irekitzea zergatik ez den bidezko².

Halaber, Lehia Defendatzeko Erregelamenduaren 27. artikulua arabera, Kontseiluak prozedura ez abiatzea eta jarduketak artxibatzea erabaki ahal izateko, Ikerketa Zuzendaritzak jasotako salaketaren, aurrez egindako jarduketan eta artxibatzeko proposamenaren berri emango dio.

2. Gaiaren funtsa

5. Jarritako salaketa aztertuta, ez da ikusi Lehia Defendatzeko Legearen aurkako jokabideen zantzurik.

6. Izan ere, legearen 1. artikulua debekatu egiten du taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera

² Otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretua, Lehia Defendatzeko Erregelamendua onartzen duena. BOE, 50. zk., 2008ko otsailaren 27koa.



oro, baldin eta horien helburua merkatuetan lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea bada.

Hortaz, artikulua hori aplikatu ahal izateko, betebeharra da eragile ekonomiko bat baino gehiagoren arteko borondate-ituna egotea, eta ez da horrelakorik gertatzen aztergai dugun kasu honetan. Izan ere, eragile bakarrak erabaki du, PROCTER & GAMBLE enpresak, parafarmaziei bestelako deskontu bat aplikatzea, eta ez dago inolako zantzurik erabaki horretan hirugarren batek parte hartu duela frogatzeko. Horrenbestez, borondateen pluraltasunik ez dagoenez, salatutako jokabideak ez du lekurik aipatutako 1. artikuluan.

7. Bestalde, Lehia Defendatzeko Legearen 2. artikulua debekatu egiten du enpresa batek edo batzuek duten nagusitasunezko tokia abusuz baliatzea. Tipo hori aplikatu ahal izateko, hainbat baldintza bete behar dira: batetik, eragile ekonomikoak nagusitasunezko tokia izan behar du merkatu adierazgarrian eta, bestetik, jokabide horrek abusuzkoa izan behar du. Horrez gain, abusuak lehiaren aurkako ondorioak eragin behar ditu, jokaera horrek izan dezakeen eraginkortasuna kontuan hartuta ere arindu ezin izango direnak.

Kasu honetan, ez dago beharrik merkatu adierazgarria zein den zehazteko eta salatutako enpresak nagusitasunezko tokia duen ala ez aztertzeke, salaketan ez baita ikusten inolako abusu-zantzurik.

Izan ere, salaketan adierazten denez, PROCTER & GAMBLE enpresak, bere borondatez, aldatu egin du bere produktuetako batean merkaturatzaileei egiten dien deskontua: murriztu egin du parafarmaziei ezarritako deskontua, eta, aldiz, eutsi egin dio deskontu horri farmazietan. Baina ez da inolako zantzurik erakusten salatzaileak parafarmaziak baztertu nahi dituela frogatzeko, kontuan hartuta gainera bere produktuak merkaturatzeko bideetako bat direla.

8. Agintaritza honen eskuetan ez dago zantzurik Lehia Defendatzeko Legearen aurkako jokabideak izan direla frogatzeko, eta, hortaz, espediente bat abiatu beharra justifikatzeko. Horregatik, bidezko da Ikerketa Zuzendaritzak zehapen-espedientea ez irekitzeko egin duen proposamena ontzat ematea.

Nolanahi ere, salatzaileari eskatzen diogu, lehiaren aurkako jokabideak frogatzeko beste frogarik izanez gero, beste salaketa bat jar dezala Lehiaren Euskal Kontseiluan.

Hortaz, Lehiaren Euskal Kontseiluak, goian azaldutakoa kontuan hartuz,



III. EBAZTEN DU

LEHENENGOA.- Ontzat ematea Ikerketa Zuzendaritzak zehapen-espediterik ez irekitzeko egin duen proposamena, ez dagoelako Lehiaren Defendatzeko Legea urratu izanaren zantzurik.

BIGARRENA.- Ebazpena jakinaraztea salatzaileari eta salatuari.

PRESIDENTEA
MARIA PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA
IBON ALVAREZ CASADO

BATZORDEKIDEA
NATIVIDAD GOÑI URRIZA

BATZORDEKIDEA
RAFAEL ITURRIAGA NIEVA